

HGB

[ARTASOKO ZAZPIGARREN SALMUA]

Lurrean bai,
lurrean bizi naiz.
Lurrean dut bizi gaia
eta bizi lekua.
Lurrean zutitzen naiz goiz oro
lurreko arbolen artean, lurreko gizonen artean,
lurreko abereen artean,
eguzkiaren, euriaren edo lainoaren
azpitan aritzeko.
Lurrean biz dut
lurraren esistentziaz
ohar arazi ninduen
bizitza;
lurraren zurrumurruetara
begi eta belarri zabalez
ernai jartzen zaidan bizitza;
lurreko esistentziaz
kezka arazten nauan bizitza;
pentsakor eta aztertzaile
zerura begira geratzen zaidan bizitza.
Lurrean,
abioiak dardaratzen duten aide honen pean
bizi dut lurrera karga;
kableei altuan eusteko burdinak
altxatzen dituen
lurretik datorkit
zirrara bizitzazkoa;
bideek daramazkidate pausoak
nora-larrosa
beteko
lurrean.